

EGOITZA ELEKTRONIKOKO KOMUNIKAZIOAK

INFORMAZIO-OHARRA, ERAKUNDEEI ETA KUDEATZAILEEI ALTA EMATEKO ESKAEREI ETA DATUAK BABESTEKO KONPROMISOARI BURUZKOA, LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUKO ZUZENDARI NAGUSIAREN 2022KO ABENDUAREN 21EKO EBAZPENAREN BABESEAN. EBAZPEN HORREN BIDEZ, 2023-2025 DEIALDIA ARGITARATU ZEN, LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREKIN LANKIDETZAN ENPLEGU-ZENTROEN JARDUERA GARATZEKO LAGUNTZENA.

*3.4. artikulua. – Diruz lagundu beharreko zerbitzuak **gauzatzeko epea urtebetekoa izango da, diru-laguntzak emateko ebazpena jakinarazi eta qero, eta 2023ko maiatzaren 15tik aurrera zenbatuko da, barne.***

*Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren sisteman sartzeko gakoak lortzeko eskabidea, onartutako lokal guztietarako, **hilabeteko epean egin beharko da, dirulaguntzaren ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, 3.4. artikuluan aurreikusitako moduan argitaratuz.***

5.3.b). artikulua. – Diruz lagun daitekeen jarduerari ekiterakoan edukitzea giza baliabideen azpiegitura nahikoa, enplegu-zentroa zabalik dagoen guztietan orientatzaile dinamizatzaileak eskuragarri egongo direla bermatzeko. Jardunaldi osoan lan egin beharko dute, eta horrez gain, honako baldintza hauek ere bete beharko dituzte: unibertsitateko ikasketak bukatuta izan beharko dituzte, urte batetik gorako esperientzia izan beharko dute eta orientazio-profesionaleko curriculum egiaztatua eduki beharko dute; horrez gain, ofimatikari, interneti eta lan-merkatuari buruzko ezagutzak ere izan beharko dituzte, eta, hala balegokio, administrazio-laguntzaileak ere eduki beharko dira lokalean. Orientatzaile zein administrazioko langileek erabiltzaileak EAeko bi hizkuntza ofizialetan artatzeko gaitasuna izan beharko dute.

Gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen arreta ematen espezializatutako erakundeek, berriz, orientazio-materialak desgaitasun-mota guztietara egokitzen adituak diren giza baliabideak izan beharko dituzte, eta, hala badagokio, keinu-hizkuntza dakiten orientazioko profesionalak izango dituzte.

5.3.c) artikulua. – Honako azpiegitura eduki beharko da jardueraren hasieran:

– Interneterako banda zabaleko sarbide eraginkorra, eta WIFI sarbidea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren informazio-sistemeekin konektatzeko.

– Enplegu-zentroaren erabilerarako 4 ordenagailu, gutxienez.

10 artikulua.- Hiru zatitan ordainduko da dirulaguntza:


– Lehenengo ordainketa, 2023ko ordainketa-kredituaren kargura, emandako dirulaguntzaren % 25ekoa, ebazpena argitaratu eta Lanbideren sistemarako sarbidea eman ondoren, erakunde onuradunak jardueraren hasieraren jakinarazpena aurkeztu ostean.

– Bigarren ordainketa, 2024ko konpromiso-kreditutik ordainduko dena, dirulaguntzaren esleipenaren behin betiko ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita 12 hilabete igaro direnean. Esleitutako zenbatekoaren % 50ekoa izango da.

– Hirugarren ordainketa, 2025eko konpromiso-kredituaren kargura, gainerako % 25ekoa edo 6. artikuluan aurreikusitakoa aplikatzearen ondoriozko zenbatekoa, enplegu-zentroaren jarduera amaitu eta hurrengo hilabetean, enplegu-zentrotik emandako zerbitzuaren azalpen- eta ebaluazio-memoria bat aurkeztu ondoren, erabiltzaileen datuekin eta zerbitzuak erabiltzaileengan duen gogobetetze-mailari buruzko informazio garrantzitsuarekin (gehienez, 20 orrialde)

EGOITZA ELEKTRONIKOAREN BITARTEZ AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:

1. Dokumentazioa modu **TELEMATIKOAN** aurkeztuko da, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoaren bitartez: <https://www.euskadi.eus> >>> **Nire karpeta** >>> **espedientea**>>> **JARDUERARI EKITEKO ESKABIDEA** botoia.



Honako hau da 1, 2 eta 3 puntuetarako prozesu bakar batean aurkeztu beharreko dokumentazioa:

1.1. Konpromisoa datuak babesteko arloan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren tratamendu-eragile gisa, elektronikoki sinatua.

1.2. Erakundeari alta emateko eskabidea beteta eta elektronikoki sinatua.

1.3. Langile-kudeatzaileari alta emateko eskabidea* beteta eta elektronikoki sinatua.

Hiru dokumentu horiek atxiki eta gero, izapidea amaituko da botoi honi sakatuta:

SINATU ETA BIDALI

Erakundeak bigarren kudeatzaile bati eman behar badio alta, bigarren eskabide hori **DOKUMENTUAK ERANTSI** botoi orokorretik egin beharko da.

DOKUMENTUAK ERANTSI

2. Erakundeak ***langile-kudeatzaileari** baino ez zaio sarbidea emango Lanbideren orientazio-aplikaziora, baina bakarrik deialdian zehar orientatzaileen/koordinatzaileen alta/baja informatikoak eskatzeko, **ALTEN KUDEATZAILEAREN ESKULIBURUA** kontuan hartuta.

Erakunde bakoitzak edo, hala badagokio, talde bakoitzak, **baimen informatikoen eskuragarritasunaren eta kokapen bakoitzerako baliabideen erabilgarritasunaren adierazpena** beteko du (**3 DECLARACION DISPONIBILIDAD CLAVES Y MEDIOS.pdf**), ebazpen bidez onartutako kokapen guztietara sarbide informatikoa izan ondoren, eta ez lehenago. Sarbide-gakoak izan beharko ditu, gutxienez, orientatzaile batek emandako kokapen bakoitzean. Adierazpen hori botoi orokorraren bidez erantsi beharko da, Egoitza elektronikoa duen espedientearen DOKUMENTUAK ERANTSI botoiaren bidez.

DOKUMENTUAK ERANTSI

Vitoria-Gasteizen, 2023ko maiatzaren 3an



Sin .: Jesús María Ordóñez Orzaiz
Laneratzeko Zerbitzuko arduraduna